




**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

► **Pertsonen Kudeaketa**
Gestión de Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián



GOBERNU BATZARRARI

A LA JUNTA DE GOBIERNO

Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 17an, 2022ko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen. Bertan, Donostiako Udaleko funtzionarioen plantillan bete gabe zeuden plaza batzuk jaso ziren. Akordio hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 25ean, 98. zenbakian.

La Junta de Gobierno Local aprobó el 17 de mayo de 2022 la Oferta de Empleo Público del año 2022, que incluía diversas plazas vacantes de la plantilla de personal funcionario del Ayuntamiento de San Sebastián. Dicho acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 25 de mayo de 2022, núm. 98.

Bertan sartutako plazzen artean, C1 eta C2 azpitaldeko eta E taldeko plaza hutsak sartzen dira, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bigarren artikuluan sartutakoak.

Entre las plazas comprometidas, se incluyen las plazas vacantes del Subgrupo C1 y C2 y Grupo E incluidos por el artículo 2 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

Hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak egin dira. Hautaketa prozesua oposizio-lehiaketa berezi bidezkoa izango da.

Se han elaborado las bases que regularán el proceso selectivo por el sistema de concurso-oposición especial.

Oinarriak prestatzerakoan, kontuan hartu da gaiari buruzko erregulazio berezia; zehazki, Donostiako Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak, eta honako arau hauetan xedatutakoa: 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (TREBEP); 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, osagarri gisa aplikatzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidego eta eskalena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.

En la elaboración de las bases se ha tenido en cuenta la regulación especial en la materia; en concreto, las Bases Generales que vienen regulando los procesos selectivos para el ingreso como funcionario o funcionaria de carrera al servicio del Ayuntamiento de San Sebastián y por lo dispuesto en las siguientes normas: Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP); Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local; Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado, de aplicación supletoria a la Administración Local; Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi; Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, oinarrien testua irizpen honi erantsi zaio onar

Tras la negociación con la representación del personal, el texto de las bases se acompaña al presente



daitezen.

dictamen para su aprobación.

Horregatik guztiagatik, Pertsonak Kudeatzeko Zuzendariak hala proposatuta Ogasuneko eta Finantzaketako zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzardeak 2019ko ekainaren 21ean emandako, eta, ondoren, 2021eko maiatzaren 4an eta 2022ko urriaren 18an aldatutako eskumenak erabiliz honako erabaki hauek hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

En su virtud, el Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas, en ejercicio de las competencias atribuidas por la Junta de Gobierno Local el 21 de junio de 2019 y, posteriormente, modificadas el 4 de mayo de 2021 y el 18 de octubre de 2022 el concejal delegado de Hacienda y Finanzas, y a propuesta de la Directora de Gestión de Personas, propone a la Junta de Gobierno los siguientes

ERABAKIAK

Lehenengoa.- egonkortze-prozesuetan dauden Donostiako Udaleko C1 eta C2 azpitaldeko eta E taldeko plazak lehiaketa-oposizio berezi bidez betetzeko deialdia onartzea.

Bigarrena.- hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onartzea.

Hirugarrena.- deialdia eta hura arautzeko oinarriak dagokien euskarri ofizialetan argitaratzea.

ACUERDOS

Primero.- Aprobar la convocatoria para la provisión mediante el sistema de concurso-oposición especial de plazas del subgrupo C1 y C2, y del grupo E del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en procesos de estabilización.

Segundo.- Aprobar las bases que regularán el proceso selectivo.

Tercero.- Publicar la convocatoria y las bases que la regulan en los medios oficiales que correspondan.

Donostian, sinaduraren egunean.

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

112344n 1

	Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak Aprobado por la Junta de onartua. Gobierno Local.	
2022.09.20	
Batzordeko idazkaria, El/La secretaria de la Junta,	
	

